

argazkigintza > argi-ITZALAK

Zirrarak gorde nahian

Joserra Refoyo eskolako lagun batekin hasi zen argazkiak ateratzen, aspaldi; eta duela urte batzuk zaletasuna berreskuratu zuen.

IDOIA ETXEBERRIA

Gaztea nintzela hasi nintzen, eskolako lagun batekin, halamoduz». 16 bat urte zituen Joserra Refoyok. Euren kabuz hasi ziren argazkilaritzaren sekretuak argitu nahian. «Yassica batekin, poliki-poliki. Eta etxean laborategi antzeko zerbait jartzea lortu genuen!». Gerora ikastaroak ere egin zituen, gehiago ikasteko. Baina, halako batean, zaletasuna itzaltzen hasi zitzaion: ez zuen denbora argazkiak ateratzen emateko gogorik. «Utzia izan nuen denboraldi batez. Egia esateko, pixka bat alfertuta nengoen. Baina berriz hasi nintzen, lankide argazkizale batzuekin bidaiatzen hasi nintzen». Kanada izan zen lehen bidaiia, eta han, zaletasunak berriro «harapatu» zuen. Ikusitakoek sortutako zirrarak gordetzeko nahia du harrezkerok.

Paisaiak eta jendea. Beste herrialde batzuetako jendea, batez ere: Asia, Erdialdeko Amerika... «Azokak, etniak... bizitzeko beste modu batzuk. Ni inoiz ez naiz ondo moldatu margotzen, ezta idazten ere, eta suposatzen dut argazkia dela nire adieratzeko modua». Zuri-beltzarekin hasi zen: «Zuri-beltza beti gustatu izan zait, baina herrialde batzuetan koloreek duten indarra oso handia da». Diapositibak egiten hasi zen gero, eta orain argazkilaritza digitalarekin dabil: «Argazki filmak historiako geratu dira!». Argazkiak ateratzeko bai, baina ordenagailuaren aurrean egoteko «nagi samarra»

dela dio, barrez: «Photoshopek erraza dirudi, baina konplexua da. Ordu asko eman behar dira. Nik ez dut gauza arrarorik egiten: enkoadrea pixka bat zuzentzen dut, edo enfokea... Lanean egun dena ordenagailuan ematen dut! Kalera irteko gogoia izaten dut».

«Oporretan egonda ere, kamera beti ez daramat aldean. Obsesioa bai, baina ordenaren barruan!». Argazkiak ateratzean zailena argia kontrolatzea dela uste du, «argi-itzalak dituzten argazkiak, alegia». Eta argazkiak egitean bilatzen duena, «zerbaitek zirrara eragitea, kontrasteak edo, aho zabalik uzten zaituzten gauzak bilatu eta gordetzea». Eta zertarako gorde, erakusteko ez bada? Argazkilaritza jendearekin egotea da Re-

■ nortasun agiria

- **Izena:** Joserra Refoyo.
- **Jaio:** Sorian, 1960an. Txikitan etorri zen Euskal Herrira, eta orain Abanto-Zierbenan bizi da.
- **Ogibidea:** BBK bankuan egiten du lan, aholkulari gisa.
- **Argazkilaritza:** 1975. urtearen inguruan hasi zen. Eta zaletasuna erdi-itzalita izan ostean, duela urte batzuk berriro gogoz ekin zion. Euskal Herriko Argazkilaritza Taldean elkarteko arduradunetako bat da.
- **Lehiaketak eta erakusketak:** Erakusketak batzuetan parte hartu du, baina beti taldean: «Orain arte ez naiz animatu, lan handia da eta! Erakusketak egitekotan, ondo egin behar dira!». Lehiaketetan ere parte hartu izan du.
- **www.federacionfotovasca.org**



foyorentzat. «Besteen argazkiak ikustea izugarri gustatzen zait. Eta nik ere nahiago dut nire momentuak partekatzea. Laguntza antzeko zerbait sortzen da». Argazkilaritzaz gainera, irakurtzea, bidaiatzea, golfa eta mendia ditu gustuko.



Yemen.



Turkia.



Bali (Indonesia).



Kenya.



Namibia.



Vietnam.

Ongi etorri
Maidar



Zorionak
Izaskun, Xabi eta Iker